

## Zinea Biterin atzo hasi zen, eta asteburuero izango dira pelikulak ume eta helduentzat

■ Haurrentzat 'La Gran película de Piglet' botako dute, gaur eta bihar ■ Helduentzat 'Piratas del Caribe' asteburu osoan ■ Aurreko kurtsoan 4.000 eme eta 3.074 heldu ibili dira.

BITERIN hasi da zinea eta Aste Santu ingurura arte ostiral, larunbat eta igandero izango dira pelikulak. Aurreko kurtsoan bezalaxe ostiral, larunbat eta igandean helduentzako pelikula izango da. Larunbat eta igande arratsaldean berriz, umeek izango dute aukera.

Iaz bezala, helduentzako pelikulak ostiralean 22:30-etan dira, eta larunbatean 19:30etan eta 22:30etan. Igandean saio bakarra izango da, 19:30etan. Umeentzako pelikulak berriz larunbat eta igande arratsaldetan izango dira, 17:00etan.

Sarrerei dagokionez, urtarriera arte iazko prezioak mantenduko dira: helduek 3,5 euro eta umeek 2 euro, eta urtarrietik aurrera zerbait jeitsi egingo da.

### Ume asko

Biteritik emandako datuen



Harry Potter pelikulak bildu zuen ikuslerik gehien aurreko kurtsoan.

arabera, iaz 4.000 lagun joan ziren umeen sesiora eta 3.074 lagun helduenera. Astero helduek 4 sesio dituzte eta umeek 2 eta gainera helduentzako asteburu gehiagotan izan dira pelikula. Beraz, umeen pelikuletan jende gehiago ibili da, eta asteburuero ohitura bihurtu da. Helduak peliku-

laren famak eta herrian beste gauza askorik ez izateak mugitzen ditu zinera eta badi-ra aldiak Biteri lepo egon dena eta inor gutxi joandakoak ere bai beste batzuk. Umeak askoz erregularrago joaten dira. Iaz 23 pelikula izan ziren umeentzat eta helduentzat 29. Harry Potter eta

El señor de los anillos denentzat bota zituzten.

Harry Potterren arrakasta Jenderik gehiena Harry Potterrek bildu zuen lehengo kurtsoan, 440 ikusle. Kultur etxean gustora daude zineak izan duen erantzunarekin, umeen kasuan batipat. □



Benben eta Joxe Elozegi entrenatzaileak jokalariei partidu aurreko kontsejuak ematen.

### ■ ERRUGBIA

## Aurreneko partidua etxean, bihar

HERNANIK igandean jokatuko du landaren etxeko aurreneko partidua Ligan. Landareko mutilak Zaragozako Fenix taldea izango dute kontrario eta Ligari Bilbon emandako hasiera onari eusten saiatuko dira Benbenen jokariak. Hala ere, hasiera ona emaitzari dagokionez izan zen, joko aldetik oraindik hobetu beharreko partidua egin baitzuten hernaniarrek.

Partidua eguerdiko 12:00etan izango da. □

### ■ FUTBOLA- GORENGOA

## Berio - Hernani

GAUR Hernanik entrenatzaile berriarekin jokatuko du Berioen kontrako partidua, Berio bertan. Jon Loraneke hartu du berriz ere taldea eta saiatuko da Hernani zutolik ateratzen. Partidua gaur, arratsaldeko 15:30etan da. □

## Bertso afaria Ur-Mian

EREÑOTZUKO Kultur Astea gaur hasiko da eta punta puntako bertso afaria izango da Ur-Mia elkartearen: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña ariko dira afalondoan. Txartelak salgai egongo dira 15:00ak arte Ur-Mia elkartearen eta Irrintzi, Txilibita, Oindi, Txili eta Garin tabernetan. □

## Perretxiko erakusketa

URRETXA elkarteak perretxiko erakusketa egingo du bihar Plaza Berrian. Goiz eta arratsalde egongo da erakusketa eta eguerdiko 12:30etan perretxikoak probatze-ko aukera ere izango da. 13:00-etan, berriz, argazki lehiaketako sariak banatuko dira Plaza Berrian bertan. Bestalde, gaur Urdiaina irteera dago perretxiko biltzera. □

### ■ BOLEIBOLA

## Hernani-Galdakao

MUTILEN taldeak Galdakaoren kontra jokatuko du arratsaldean, 17:30etan. Hernaniarrek aurreneko partidua irabazi egin zuten eta joku ona erakutsi ere bai. Nesken taldeak bihar 11:30etan jokatuko du Santanderren kontra. □

## Manifestaziorako deia

KONTSEILUAK deituta gaur manifestazioa egingo da Donostian *Gora Euskal Herri euskalduna. Euskarari bai* lemapean. Hernanin, euskalgintzaren inguruan dabilzan zenbait taldek manifestaldira joateko deia egin dute. Juan Mari Larrartek Guardia Zibilaren eskutan jarraitzen du. □

 **Antziola-Motor**  
Salmenta eta taller zerbitzua


**Ford Mondeo**

3 aukera ezberdin, gusto ezberdinentzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

**Etorri, ikusi eta aukeratu.**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



**IRUBIDE JATETXEA**

Epele auzoa 7 - HERNANI  
☎ 943 552 480  
Mobila: 667 208 702

  
Especialistas en Electrodomestios

**CANAL+**

**DIGITAL+**

**Telemar - Itxastele**  
Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99  
Nagusia 7 - Tel.: 943 33 26 00

**Telemar ANTENAK**  
TB ANTENA PARABOLIKOEN INSTALAZIOA  
INDIVIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
KONTSERBAZIO eta MANTENIMENTUA

Telefonia fijo eta mugikorra

**Telefonica Movistar**


## Harkaitz Martinez txalapartariak egin du Nafarroa Oinezeko kanta

■ Kantaren moldaketak Angel Unzuk egin ditu eta letraren moldaketak Mailen Lujanbiok ■ "Zonalderako zerbait bertakoa" egiten saiatu da Martinez, hala eskatuta.

IRUNBERRIN bihar egingo den Nafarroa Oinezeko kantak hernaniar ikutua izango du. Kantaren egilea Harkaitz Martinez aspaldi Hernanin bizi den añaogarrarena da eta moldaketak Angel Unzuk egin ditu, urte askoan Hernanin bizi izan den iruñarrak. Letra Irunberriko ikastolako irakasle den Txomin Ugarterena da eta moldaketak Maialen Lujanbio bertsolari hernaniarrak egin ditu. Harkaitz Martinezek familia du Iruberri inguruan eta horren bidez etorri zaio kanta egiteko eskaera. Lanarekin oso gustora eta harrutua dago "jende profesionala ez izan arren oso ondo lan egin baitute".

### Bertako baliabideekin

Kantaren oinarria, bailarako lan tresnen soinuak jartzen dute, ardi mozteko goraizak, mahatsa kimatzeko goraizak, txorixo fabrikako makinak, aizkorak, almadiak... eta horri lotuta jolas ritmiko bat dago, umeek txalo eginaz eta beste segitzen dutena. Musika, berriz, herriko txar-rangakoek jotzen dute, alegia, bailaran dauden musikariek. Baina, Harkaitz Martinezek Kronikari esan dienez ez du kanta bakarrik egin aurtengo Nafarroa Oinezeko, honekin batean material didaktikoa ere egin dute: bideoa, bailarako ohiturak, bizibidea, euskera eta



Harkaitz Martinez txalaparta astintzen, kontzertu batean.

abar jasotzen dituen materiala antolatu ditu eta denarekin CD room bat atera dute. CD Room-aren 10.000 kopia Euskal Herri guztiko ikastoletan banatua ditzute, eskualdeari buruzko informazioa zabalteko.

Igandeko festa Iruberriko ikastolaren alde dirua biltzeko antolatu dute. Ikastola honetara, Iruberri, Salazar, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako

umeak joaten dira eta, trabak traba, 74 ikasle ditzute gaur egun, orain 25 urte 7 ikaslerekin hasi baziren ere.

### Autobusak Hernanitik

Doberak antolatuta bi autobus aterako dira igandean. Bigarren autobusean oraindik beste 25 pertsonentzako lekua dago. Sarrera horiek igande ateran bertan banatuko dira, Atsegindegin 09:00etan. □

## HITZ BITAN

### ✓ ARRAUNA

Arraun elkarteko afaria gaur Mendizabalen. Hernanin arraunean ibilitakoek afaria dute gaur Mendizabal sagar-dotegian. Afaria 21:00etan izango da.

### ✓ ELUR-TXORI

Sagardo lehiaketako izen ematea zabalik. Elur-Txori elkartek azaroaren 8an du sagardo lehiaketa eta sozioek azaroaren 4 arte dute izena emateko aukera. Hortik aurrerako egunetan sozio ez direnek ere eman lezakete izena. Afaria 23 euro kostako da eta izen ematea Elur-Txorin bertan egin behar da. □

## ✠ MIKAELA IPARRAGIRRE KORTAJARENA

ANDREA  
(JOSE LUS SETIENEN ALARGUNA)

Atzo hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Haren seme-alabak: Maria Isabel eta Jose Lete, Jose Maria eta Mari Karmen Ugalde, Maria Teresa eta Esteban Zulaika, Maria Kristina eta Jose Manuel Huizi, Maria Fernanda eta Iñaki Jauregi, Jose Migel (\*), Iñaki eta Lourdes Isasa; bilobak, birlobak, ezkon anai-arrebak, izeba, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZORTZIETAN, MIKEL GOIINGERUAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Urrietan, 2003ko urriaren 18an

Helbidea: Gurutzeta baserria (Moko)

Oharra: Gorpua Orbegozo Ehorzketa Tanatorio berrian (Kiroldegiaren ondoan) egongo da arratsaldeko 17:00ak arte.

## I. URTEBETETZEA

Pepi Arrieta Otaño

2002ko urriaren 15ean hil zen.

Pepiren senitartekok, ezagutu zenuten guztio gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza **gaur, urriak 18**, arratsaldeko 19:00etan, Hernaniko San Joan bataiatzailearen parrokiaren.

Hernanin, 2003ko urriaren 18an.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☏ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- ▶ Gauz: Ansa  
Andoain. Ondarreta  
☎ 943 591302

## IRAGARKI MERKEAK

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: **656 78 64 15 (Kepa)**

Lokala alokatzen da. 53 m<sup>2</sup> dauzka eta zentro-zentroan dago. Interesatuak deitu telefono honetara: **646 27 54 63**

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: **943 55 27 79**

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:00etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : **658 73 88 32**

## Iñigo Royo Manterola

Kiromasaja Naturopatia  
Reflexologia Homeopatia  
Auriculoterapia Iridiologia  
Arazo neurologiko eta bizkar hezurrekoen konpontzea

Sta. Barbara 42 - 2. esk. - 626 807 633



## KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA			
Taldeak		Non	Noiz	Erremontea - Galarretako Jaialdia			
<b>Goren.</b>	Berio-Hernani	Berio	Gaur 15:30	1) Juaristi-Badiola / Iturralde-Aizpurua II			
<b>Emakum.</b>	Hernani-Mutriku	Zubipe	Bihar 17:00	Galarreta	Gaur		
<b>Gaz. Eusk</b>	Hernani-Amorebieta	Zubipe	Gaur 16:00	2) Zeberio-Eizagirre / Altuna II-Lizaso	Galarreta	Gaur	
<b>Gaz. 1</b>	Aldapetarrak-Hernani	Matigoxot	Gaur 15:30	3) Bitoria-A. Lekunberri / Altuna II-Urko	Galarreta	Gaur	
<b>Kad. Oh.</b>	Hernani-Eibar	Zubipe	Gaur 12:15	4) Zeberio I-J. Etxeberria / Sarasua-Urrutia	Galarreta	Gaur	
<b>Kad. 1</b>	Hernani-Trintxerpe	Zubipe	Bihar 11:30	<b>Gipuzkoako Txapelketa</b>			
<b>Haur Oh.</b>	Tolosa-Hernani	Usabal	Gaur 10:30	<b>Kadeteak</b>	Eibar/Ezeiza-Fernandez de Garosti	Eibar	Gaur
<b>Haur 1</b>	Internacional-Hernani	Matigoxot	Bihar 09:00	<b>Paleta jub</b>	Lucas-Gerra/Jauregi-Lujanbio	Kiroldegia	Gaur
<b>BOLEIBOLA</b>				<b>Jubenilak</b>	Ramos-Huizi / Lazkao	Kiroldegia	Gaur
<b>Mutilek</b>	Hernani-Galdakao	Hernani	Gaur 17:30	<b>Nagusiak</b>	Alvarez-San Sebastian / Añorga	Kiroldegia	Gaur
<b>Neskek</b>	Hernani-Santander	Hernani	Gaur 11:30	<b>Kadeteak</b>	Murumendi-Arregi	Beasain	Gaur
<b>ERRUGBIA</b>				<b>Jubenilak</b>	Zurutza-Arrieta	Kiroldegia	Bihar
<b>Euskal Li</b>	Hernani-Fenix	Landare	Bihar 12:00	<b>Nagusiak</b>	Ruiz de Galarreta-Otegi / Murumendi	Kiroldegia	Bihar
<b>Jub. Lagun</b>	Atleti Hernani-Fenix	Landare	Bihar 11:00	<b>GIMNASIA</b>			
<b>Kadeteak</b>	Lohitzune-Hernani	Baiona	Gaur 15:00	<b>Gip. Tx</b>	Taldeko txapelketa	Kiroldegia	Bihar

### EDERTZE ZENTRO MIXTOA


Depilazioa, aurpegi tratamenduak, gorputz tratamenduak, solariumna, makilajea, zerbitzuak: (tatuajea, piercing, dietista,...)

### URRIKO ESKAINTZA

Gorputza argaldu eta sendotzeko + odol zirkulazioa zaintzeko gure metodo aurreratuena. **Dermosonic** metodoa da zure lagunik onena.

- 12 sesioko Bonoa : **2 opari**
- 25 sesioko Bonoa : **5 opari**

Arrosak edertze zentroa - Antziola kalea 9 - Tel.: 943 33 02 89



OIALUME  
BILTOKIA.

Igande eta jaiegunetan  
dantzaldia, 19,30tatik

**Bihar Igandea,  
dantzaldia. ZATOZI!**

OIALUME BILTOKIA



Oialume auzoa  
943 55 29 38

GALARRETA JAIALDIA

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00 ETATIK AUERRERA**

ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: **Juaristi - Badiola / Iturralde - Aizpurua II**
2. partidua: **Zeberio II - Eizagirre / Altuna II - Lizaso**
3. partidua: **Bitoria - A. Lekunberri / Altuna I - Urko**
4. partidua: **Zeberio I - J.Etxeberria / Sarasua - Urrutia**